

# Mahoma eta Korana

*La religión musulmana (el Islam) nació con el Profeta Mahoma y su libro revelado (el Corán). Depositario de una "Revelación" y conocedor de las tradiciones judía y cristiana, organizó una comunidad nueva de creyentes, y dejó un mensaje expresado por palabra y conducta para los mismos. Ello fue obra del siglo VII de la Era cristiana, que en los siguientes siglos conoció un desarrollo cultural y religioso excepcionalmente rápido.*

Mahoma (c. 570-632) eta bere Korana (testu finkatua, 658) daude erlijio musulmanaren sortzean (*Islam*). Arabiako semea eta tribu arabiar bateko aitor-seme pobrea zen Mahoma. Umezurtz geraturik, osaba batek jaso zuen, eta beronekin ibili zen merkatarikarabanetan, harik eta hogeita bost urterekin-edo Khadija alargun aberatsarekin ezkondu zen arte.

610ean Gabriel Goiaingeruak hitz egin zion, eta erlijiotasun berrira deitu Allah-ren izenean; baina ez zen hasi zabaltzen ulertu omen zituenak, eta lau-bost urtean bere ondokoek ezagutu zuten goi-mezu hura. 615-622. urteetan ekin zen Mekan jendarteko predikuari, beti ere bertakoen iseka eta burlen artean, mekatarrak jentilak baitziren, artean: Abraham-en Jainko Bakarraren egia zen Mahomak zabaldu nahi ziena. Baina sasi-jainkoak biltzen zituen bertako Kaabak jendetza erakartzen zuen inguruko eskualde guztietatik, eta Mekako indar sozialak ez zeuden prest hango Santutegiko bizitza hondatzeko.

Haren aurkako gatazka erabat gogortu zenean (622), erbestera irten behar izan zuen Profeta predikariak (Medina-ra, 622). Urte hori izan da geroztik Aro Islamiarraren abiapuntua (*hegira*). Gerora, Penintsula Iberiarrean nagusi gertatuko zen Eskola islamiarra Medinako

esperientziatik jaiotakoa izan zen: malikismoa. Urruneko gertaera hark neurriren batean gertuko bilakaera izan zuen, Nafarroako Erriberan, adibidez.


Kasik hamar bat urteko gerra eta gorabeheren ondoren Mahoma garaile itzuli zen Mekara (630). Gero eta sinestun musulman gehiago bildu zituen bere inguruan, eta azken bi urteetan herri gidari bizkor bilakatu zen Mahoma Profeta (*Umma* edo komunitate fededun azkarraren Buru). 632ko ekainaren 8an hil zen Mahoma Medinan, munduko erlijio handietako bat sortu eta abiarazita gero.

Fededun musulmanarentzat, Mahoma da Testamentu Zahar eta Berrian izandako Profeta guztien ondoren jatorrena eta azkena. Sinesmen islamiarrean, Allahren ondoren hain da handia Mahoma, ze laudoriozko berrehunen bat izenordeko erabil daiteke haren nortasuna goresteko.

VII. mendeko gizona da, beraz, Mahoma Profeta. Ordurako, Judutasunak eta Kristautasunak bizialdi historiko luzea ibilia zuten, Ekialde Hurbilean, Europan eta lurralde ezberdinetan.

## **Korana: liburu sakratua**

Gertaera txiki eta handien azpitik eta gai-



netik, Mahomaren funtsezko ekarpena Liburu Sakratu bat da: Korana. Juduek Itun Zaharrean *Tora* sakratua izan zuten bezala, edo kristauen *Biblia* bezala, *Korana* ere sakratua da; kasu honetan, Allahk hitzez hitz eta arabieraz bere horretantxe emana. Bera da musulmanen lehen fede-oinarria eta gida.

Hala izan da, ziurki, noiznahiko musulman euskal herritarren artean ere, Erdi Aroan bezala gaur egun. Hasteko, badakigu Koranaren latinezko itzulpena (osoa edo gehiena) lehenengoz Iruñean egin zela (1143). Eta ahalegin hark segida izan du gure egunetan: gaztelaniazko itzulpen onenetakoa Julio Cortés Soroa irakasle bilbotarrarena da, eta orain gutxi euskarara ere itzuli dute D. Amundarain eta I. Ugaldek (2007).

Ezagutzen dugun Koranaren arabierazko testu errebelatua ez zuen bere horretan idatzi Mahomak, baizik eta ondoko jarraitzaileak saiatu ziren hark esandakoak edo haren nahiz inguruko idazki-txatal sakabanatuak bildu, testigu ezberdinei entzun eta jasotako guztien gain testu fidagarri errebelatu eta ofiziala zehazki ematen (Uthman kalifa, 644-656). Hori da Koran kanonikoaren sorrera.

Batez ere musulmanen sinesgaiak aurkezten ditu Koranak, fededunen erlijiotasuna gidatu eta nolakoa izan behar duen aditzera emateko; baina Korana ez da mugatzen horretara, eta *Dar el-Islam* delakoa (Islamaren lurraldea), gizarte sinestun edo anitzaren barruti politikoa iturri horren arabera eratu nahi du: hau da, mundu honetako erreinua

islamiarki gobernatzeko arauak ematen ditu. Koranak arau *politiko-juridikoaren* balioa ere badu, beraz (hortik jaio ziren kalifatuak, adibidez). Ebanjelioek, alderantziz, ez dute aurkezten mundu honetarako *egitismo* politikorik (Zesar-ena dena harena da: Mt 22. 21).

Dena den, ikerlan, ikaslan, interpretazio eta eskola anitzen ondoren iritsi ohi da Korana gizartera. Zientzia teologiko eta juridiko handiaren ondoren gorpuztu ohi da gizartean Profetaren mezu korandarra, *xaria* deritzan Lege islamiarraren bidez.

Korana 114 kapitulu edo *sura*-tan banatuta dago, atalburu luzeenetatik laburrenetera errenkan; baina ezin izan da erabat ziurtatu guztien sorrera-unea (kronologia). Testu hauek denak ez dira Allahk *iradokiak* bakarrik, zehazkiago Hark hitzez hitz *diktatuak* dira, baietzatu ohi denez.

Koranak, doktrina eta garaiko gertaeren oihartzuna ere jasota du; baina fedezko egia handiek dute lekurik eta garrantzirik handiena: Allah-ren nortasun bakarra, Islamaren balio unibertsala, *Umma* edo elkarte islamiarraren lehenetasun erlijioso-politikoak, etab.

Ugari dira Koranak gogoan dituen gaiak: Jainkoa edo Allah, Abraham, Moises, Jesus eta Maria, judu eta kristauak, kreaioa eta mundua, azken judizioa, zerua eta paradisia, Eskriturak eta sinesmena, bakea, tolerantzia eta gerra santua, gizakia eta gizartea, etab.

**Joseba Intxausti**